

ERABAKIA, 2021eko ekainaren 25ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, 2021eko maiatzaren 21eko Gerentearen erabaki bidez deitutako "SGIkerreko goi mailako teknikarien" lan poltsak (1.Taldekoak) zabaltzeko hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan diren hautagaien behin-behineko zerrenda onartzeko

Gerentearen 2021eko maiatzaren 21eko erabaki bidez "SGIkerreko goi mailako teknikarien" lan poltsak (1.Taldekoak) zabaltzeko hautaketa-prozesua deitu zen eta erabaki horren eranskinean deialdi hori arautuko duten oinarriak jaso ziren.

Laugarren oinarriko lehenengo atalean zehaztutakoari jarraiki, UPV/EHUko gerenteak onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda onartzeko erabakia emango du, baztertutakoan kasuan, kanpoan uzteko zioa azalduta.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- "SGIkerreko goi mailako teknikarien" lan poltsak (1.Taldekoak) zabaltzeko hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko erantsitako zerrenda onartzea. Espezialitateak:

- Kalkulu zientifikoa.
- Genomika.
- Materialen eta gainazalen mikroskopia.
- Makroportaera-mesoegitura-nanoteknologia
- Neurri magnetikoak.
- Proteomika.
- XPS fotoelektroien espektroskopia.
- Raman-multiespektroskopia akoplatuak.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 9.2 oinarrian adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

Bigarrena.- Erabaki hau UPV/EHUK horretarako prestatutako web orrian (<http://www.ehu.eus/eu/web/azp/deialdiak>) argitaratzeko agindua ematea.

Laugarrena.- 4.1 oinarri orokorrean zehaztutakoaren arabera, bost egun balioduneko epea ezartzea onartutakoan eta baztertutakoan zerrendaren aurkako erreklamazioak egiteko, edo, hala dagokionean, baztertzea eragin duen arrazoia zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan baztertzea – edo, hala dagokionean, zerrendetako batean ere ez agertzea – eragin duen akatsa egiaztagiri bidez zuzentzen ez duten hautagaiak onartutakoan zerrendan sartzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

Leioan, 2021eko ekainaren 25ean

UPV/EHUko GERENTEA
Miren Lorea Bilbao Arteche

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
REGISTRO DE RESOLUCIONES
ERABAKIEN ERREGISTROA
Resol. nº 2453/2021 Erabaki Zk.